

COLORBRAIN.

KOSTU EGITURAK.

Badakigu gure proiektua hasi aurretik kostu batzuk izango ditugula irabaziak izan aurretik, horregatik modu batean izango ditugun kostuak laburbildu ditugu.

- Gizarte etxeko gela izateko fiantza ordaindu beharko dugu, modu horretan kostu finkoa izango litzateke.
- Produktuak salmentan jartzeko hasteko kantitate txiekietan egingo dugu eskaera, horregatik honako hau erosiko dugu hasieran: 50 kamiseta zuri, 50 katilu, 50 tote bag zuri eta 50 koaderno tapa zurikoak erosiko ditugu. Modu horretan ondoren marrazkia egiteko aukera izango dugu. Aipatu dugunez, kantitate txiekiekin hasiko gara, modu horretan erabiltzaileek zenbat erosten diguten ikusi ahal izango dugu, eta, aurrera egin ahala, kopuru gehiagoko eskaerak egin beharko ditugu. Badakigu hasierako produktuak erosteko kostua aldagarria izan daitekeela eta horregatik denbora pasa ahala kopuru handiko erosketak egingo ditugu. 50 kamiseta zuriak 130€-ko kostua dute, 50 katilu 41,50€-ko kostua dute, 50 tote bag zuriak 76€-ko kostua dute eta 50 kuadernoak 49,50€-ko kostua izango dute, guztira, dena erostea 297€-ko kostua izango du. Colorbrain enpresak, gizarte etxeko gelan izateko ordenagailu bat eta ipad bat izango dugu. Nahiz eta gure lana ez den leku finko batean egin behar ezta lan presentziala ere. Baina, komeni ikusten dugu adibidez ipad-aren kasuan kamiseten, kuadernoen eta poltsen marrazkiak egiteko aukera bezala edukitzea. Ordenagailuaren kasuan, gure gelatxoan izango dugu edozein ekintza egiteko (talde terapiak, kasu indibidualak, kasu konkretuak, lan orokorrak...) Ordenagailua 275€-rengatik erosiko dugu HP-ko markaduna eta Ipad Air 4-a 442€-rengatik.
- Dakigunez, lan egingo duten pertsonak ditugu eta horiei ere ordaindu beharra dago, horregatik postuaren arabera diru kantitate bat edo beste irabaziko dute. Beraz:
 - **Psikologoek:** Kostu aldagarria izango da, segun eta zenbat banakako terapia izaten ditugun. Horregatik, banakako terapia bakoitzeko, orduko 15€ irabaziko dute. Kostu aldagarria denez, geroz eta terapia gehiago diru gehiago irabaziko dute. Horretaz aparte, taldeko terapiak egiteagatik 20€ irabaziko dituzte.
 - **Administratzaileak:** Administratzaileen kasuan, kostu finkoa izango dute. Asteleheenero lan egingo dute lau orduz eta horrela hilean 100€ jasoko dute. 4 horietan soilik, hitzorduen

kudeaketa, asteko agenda antolatu eta diru sarrerak egiaztatuko dituzte. Kontuan izan behar dugu bi administratzaile ditugula eta beraz lana bion artean egiteko aukera izango dute.

- **Marketing-a eta publizitatea:** Kasu honetan marketing eta publizitatea eramango duen pertsona egunero ordu batez egingo du lan sare sozialak eta publizitatea eramateko. Beraz, kasu honetan ere kostu finkoa izango da hilean 130€ irabaziz.
- **Diseñadorea:** Kostu aldagarria izango da. Hasieran, 5 ordu egunero lan egingo du, baina ikusten badugu erosketa asko ditugula ordu gehiago lan egingo ditu. Hau da, zenbat eta produktu gehiago ditugun, lan gehiago egingo du eta diru gehiago irabaziko du. Baina hasierako tarifa egunero 5 ordu lan egiteagatik 150€ irabaziko ditu.
- **Informatikoa:** Kostu aldagarri izango da, soilik dirua irabaziko duelako arazoak daudenean. Lan egindako ordu batengatik 12€ irabaziko ditu.